

# Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

## Zein zen Gabrielle Bonheur?

PARIS, 1971KO URTARRILAREN 10A. Gabrielle Bonheur Chanel hil zen hiru hamarkadatan bizitoki izan zuen Ritz Hotelean, bakarrik eta 87 urte zituela. Coco Chanelen mitoak, ordea, bizirik irauten du oraindik ere, egunotan zine aretoetan ikusgai dagoen *Coco* filma lekuko.

Bakarrik hil zenak bakarrik egin zuen aurrera txiki-txikitatik, ama hiltzean aitak umezurztegian utzi zuenetik. Gaztetan, egunez josi eta gauzez tabernetan kantatzen aritzen zen. *Qui qu'a vu Coco* kantak eman zion ezizena, eta bere lehen negozioarako bigarren abizena erabili zuen. Karrera iraultzailea kapelak diseinatzeko abiatu zuen, *Belle Époque*-ko buruko arranditsiak baztertuz. "Nola da posible garunak horien azpian funtzionatzea?" zioen, hain berezkoa zuen ironiaz. Cocori behintzat ederki funtzionatzen zion; ekoizpena, enbalatzea eta banaketa bikain kudeatuz, XX. mendeko emakume enpresarien artean aitzindaria izan zen.

Gainerako jostunek gorpuzak estaltzen zituzten garaian, Cocok orkatilak eta lepoak bistan utzi zituen. Itxura androginoa eta galtzak erabiltzea sustatu zuen. Feminismoaz baino feminitateaz hitz egiten zuen arren, emakumeei askatzen lagundu zien. Negozioa 1939an itxi behar izan zuen, baina 1954an lanean zen berriro. Parisko emakume asko Dior-en

**Coco Chanel, beti zigarroa eskuan edo ezpainetan, keak bere bizitza pribatu iluna are gehiago lausotzea nahi balu bezala.**



kortsetan itota zebiltzala, Chanelek arnas hartzen lagundu zien. Gerriak zabaldu zituen, eta gonak laburtu; modak mugimendu askatasuna esan nahi zuen harentzat.

Behin, operan zela, emakumezkoen soineko arrosez eta urdin argieztatik nazkatuta, zera bota zuen: "Emakume horiek guztiak beltzez izorrratuko ditut". Handik gutxira bere soineko beltz ezaguna kalean zen eta *Vogue* aldizkariak "emakume modernoaren uniforme" zela aldarrikatu zuen.

Cocteauk artistatzat jo zuen, Cocok bere burua artisautzat izan arren. Katherine Hepburnek, Marilyn Monroek eta Hollywoodeko gainerako izar nagusiek mitoa elikatu zuten. Nahi adina ondasun eta botere lortu zuen, baina arrakasta profesionalaren atzean bizitza pribatu iluna itzalean gordez. Ez omen zuen sekula iraganeko oinazeari eta bakardadeari iskin egitea lortu.

Eta mitoaren distira profesionalak ere badu orbanik. Gabrielle Bonheur-ek, jatorri txirokoa izaki, bere diseinu iraultzaileak emakume guztiek erabili ahal izatea nahi zuen, edozeinek ordaindu ahal izatea, alegia. Baina, egun, Chanelen marka duen *prêt à porter* soineko batek 6.000 eurotik gora balio du, eta goi mailako jostuntzako pieza bat nahi izanez gero, 18.000 eurotik behera ez dugu gauza handirik topatuko.

### Arrastoak

#### Bauhaus-ek 90 urte



Bauhaus artxibategia (Walter Gropius).

WALTER GROPIUS arkitektoak Bauhaus arte mugimendua sortu zuen 1919an. Talde lana bultzatu zuen, besteak beste, Paul Klee eta Vasilij Kandinskij-rekin batera. Orduko tradizioak hautsi zituen, eraikin handien nahiz objektu txikien diseinuan abangoardia eta klasizismoa uztartuz. Bauhaus-en lehen egoitzan, Alema-

niako Weimar hirian, erakusketa paratu dute uztailaren 5era arte. Berlinen hil honen 22an zabalduko da beste erakusketa bat eta Dessau-n ere hainbat ekitaldi antolatuko dituzte. Phillip Oswald Bauhaus-eko administratzailearen esanetan, mugimenduak "uste duguna baino eragin handiagoa dauka gaur egun".